



Bidaia1tuz gero,
ez ahaztu
botika-kutxa
txiki bat
prestatzen



**Zenbait ohar
BIDAIA1TZEKO
BOTIKA-KUTXA
BATERAKO**





Sendatzeko materiala:

- gazak
- tiritak
- esparatrapua
- aposituak
- finkatzeko benda elastikoak
- eskularruak
- serum fisiologikoa
- soluzio desinfektatzailea



Ahoko seruma

- Sukar-kontrakoak**
- Analgesikoak/hantura-kontrakoak**
- Antihistaminikoak**
- Zorabiorako/goragalerako botikak**
- Antiazidoak**
- Paludismoaren kimioprofilaxia (behar izanez gero)**
- Normalean erabiltzen dituzun botikak**


Ziztadetarako krema

- Intsektuak uxatzeko produktuak**
- Eguzkitako krema eta eguzki ondorenerako krema**
- Lentilletarako likidoa**



Presebatiboak

- Edateko ur bihurtzeko pastillak**
- Termometroa**



✓ Behar diren sendagaiak eskuko ekipajean eramatea gomendatzen da, dagokion errezeta edo mediku-preskripzioarekin batera.

✓ Komeni da, gainera, mediku-txosten bat eramatea ingelesez edo helmugako hizkuntzan, medikuaren harremanetarako datuak eta gure aurrekariak jasotzen dituena, sendagai horiek erabiliko ditugula justifikatu ahal izateko. Medikuak sinatu eta zigilatu behar ditu errezeta zein medikuaren ziurtagiria.

✓ Osasun-material gehiagorekin bidaiatu behar izanez gero (adibidez, xiringak, orratzak, neurgailuak, etab.), komeni da hegan egin baino lehen hegazkin-konpainiaren baldintzei buruzko informazioa biltzea, materiala eskuko maletan eramateko debekatuta dagoen jakiteko. Segurtasun-kontrolgunetik igaro eta hegazkinera igo ahal izateko, komeni da erabilera mediku-txosten baten bidez justifikatzea.

✓ Herrialde batzuetan sendagaiak sartzea oso araututa dago; beraz, bidaiatu aurretik arau horiei buruzko informazioa bildu beharko zenuke. Arau zehatzak daude nazioarteko ikuskatzearen mende dauden sendagai psiko-tropikoekin eta/edo estupefazianteekin bidaiatzeko. Zalantza bat izanez gero, hobe da helmugako herrialdeko enbaxadari edo kontsuletxeari galdetzea.